

opusdei.org

Eskerrik asko, Aita Santua, benetan Jesu Kristoren ordezkoko izan zarelako guretzat

Jainko Jauna, santuen artean
goretsi dezala beti zure errukia!

2005 Api 6

Jainko Jauna, fededunen sari-emaile
leiala, zure zerbitzari Juan Pablo
gure Aita Santua

Pedroren ondorengo ezarri zenuen
eta zure Elizaren artzai;

lurrean zure graziaren eta
errukiaren sakramentuak zintzo
banatu zituenak

pozik har ditzala zeruan beroien
fruituak.

Zure asmo esan-ezinean, Juan Pablo
gure Aita Santua Elizaren buru
ezarri zenuen;

iguzu, zure Semeak betiko zorionean
har dezala lur honetan bere ordezeko
egin zenuena.

Jainko Jauna, arimen artzai
hilezkorra, begira otoizka daukazun
herriari;

maitasunez zure Elizaren buru izan
denak, bere ardurapeko
artaldearekin batean, zerbitzari
leialaren saria irits dezala.

Otoitz egiten dizugu gure Aita
Santuarentzat:

lur honetan zure Elizarentzat
batasunaren ageriko oinarri zenuena
sar dadila orain zeruko hartalde
doatsuaren zorionean;

lur honetan zure misterioen
zerbitzari zintzo izan denak santuen
artean goretsi dezala beti zure
errukia;

zure herria egian leialki sendotu
zuen egia horren jabe izateaz poztu
dadila.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/eskerrik-asko-aita-santua-
benetan-jesu-kristoren-ordezko-izan-
zarelarako-guretzat/](https://opusdei.org/eu-es/article/eskerrik-asko-aita-santua-benetan-jesu-kristoren-ordezko-izanzarelako-guretzat/) (2026 Ots 22)